



ALDEZ AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA, FORU DEKRETU PROIEKTU HONI BURUZKOA: ADMINISTRAZIOAK EGINDAKO ZENBATEKO JAKIN BATETIK BEHERAKO LIKIDAZIO ORDAINDU GABEEN ONDORIOZKO ZERGA ZOR ETA ZEHAPENAK DEUSEZTATU ETA BAJA EMATEKOA.

Maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak, xedapen orokorrak egiteko prozedura eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartzen dituenak, I. eranskinen 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta xedapen arauemaileak prestatzeko prozeduran herritarren parte hartzea hobetzeko helburuz, goiburuan aipatutako proiektua prestatu aurretik kontsulta publikoa egin behar da; kontsulta horretan, iritzia azaltzeko eskatu behar zaie etorkizuneko arauaren eragina jaso lezaketen herritarrei eta ordezkariatasun handieneko erakundeei, honako gai hauek direla eta:

- a) Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onartu nahi den arauaren beharra eta egokitasuna.
- c) Arauaren helburuak.
- d) Ordezko konponbideak, araugintzazkoak zein araugintzaz bestekoak.

Aurreko hori betez, honako kontsulta hau proposatzen da, jakitearren zer iritzi duten egin nahi den xedapenak —Administrazioak egindako zenbateko jakin batetik beherako likidazio ordaindugabeen ondoriozko zerga zor eta zehapenak deuseztatu eta baja emateari buruzkoa da— eragin ahal dien herritarrek eta ordezkariatasuna duten erakundeek.

Herritar, erakunde zein elkarteek, egokia baderitzote, galdera sorta honetan planteatutako alderdiei buruz duten iritzia adierazi ahal izango dute, apirilaren 3ra arte, *aurrezkontsultak@araba.eus* helbide elektronikoko postontziaren bidez.



AURREKARIAK	<p>6/2005 Foru Arau Orokorra, otsailaren 28koa, Arabako zergena.</p> <p>Indargabetzea 15/2017 Foru Dekretua, martxoaren 21ekoa, onartzen duena deuseztatzea eta baja ematea Arabako Foru Aldundiaren zerga itunduen autolikidazio eta likidazioetatik datozen zerga zorrei eta zehapenei.</p>
KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK	<p>Ez eragitea zerga zor eta zehapen jakin batzuek baino likidazio kostu handiagoa.</p>
ONARTU NAHI DEN ARAUAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA	<p>Beharrezkoa eta egokia da xedapena onartzea, proposatutako helburuak lortzeko.</p>
HELBURUAK	<p>Dirubilletako zenbait jardun saihestea, sorraraz ditzaketen baliabideek baino kostu handiagoa badakarte.</p>
ORDEZKO KONPONBIDEAK, ARAUGINTZAZKOAK ZEIN ARAUGINTZAZ BESTEKOAK	<p>Beste aukera bat da ez eragitea zerga zor edo zehapen jakin batzuek baino likidazio kostu handiagoak.</p>